

KAZETARIEN TIPOLOGIARAKO ZENBAIT OHAR

Antton Azkargorta Aretxabala

Kazetaria dugu gaur egungo mundu hiperinformatuaren itxurazko izarra. Baina gero eta ezezagunagoa agertzen zaigu bere lanean betetzen duen egiazko funtsaz. Aldiberean, engranje erraldoi baten elementu soil eta anonimo, eta hala eta guztiz ere, muntaje guztian aurpegia ematen duena eta bere presentziarekin prozesu informatibo oro balioztatzen duena dugu kazetaria. Dena den, lasai asko baieztatu dezakegu Macluhanen axioma: bitartekoa, informabidea da, inoiz baino gehiago, mezua.

Haruntzago joanda, masa-informabideak Estatuaren integrazio eta barneratzeko lehen mailako tresna bilakatu diren (partido politiko eta sindikatuen pareko) uneon kazetaria ere eta funtzionarioago egin da. Hori bai, funtzio horren efektibitate handiena esplizituki ez agertzean datza, eta Estatuaren aparatua formal eta beste integrazio-tresnekiko "autonomo" bezala agertzean du bere indarrak handiena.

Nolanahi ere, lan honek ez ditu aztertzen kazetariak bere funtzioa betetzeko erabiltzen dituen mekanismo ugariak, baizik eta kazetariaren prozesu subjektiboan parte hartzen duten elementuak. Orain arte komunikazioaren alorrean sekulan erabili izan ez den ikuspuntutik saiatu gara kazetarien tipologia baterako oharrak proposatzen.

Kazetaritzaren ikertzaile nagusiek informazio-prozesua aztertu izan dutenean, bertan parte hartzen duten bi giza elementuak desberdintzekotan, betidanik esan ohi dute bata –entzulegoa– pasiboa dela eta bestea –igorlea– subjektu eragilea dela. Subjektu eragile honek izen diferente asko hartzen du: komunikatzailea, kodifikatzailea, operatzaile semantikoa edo igorlea, baina laburrago eta mundu guztiak ulertzeko moduan, *kazetaria*¹ dugu.

Gure hipotesia honako hauxe da, kazetaria, komunikabideen historia ez oso luzean, despersonalizatze-prozesu bat ari dela bizitzen. Inoiz informazioaren subjektu eragilea izan baldin bada, gero eta gehiago ari da “kodifikatzaile/operatzaile semantiko”² bihurtzen, egitura konplexu baten elementu soila alegia, egituraren logika erabat nagusitu delarik. Guzti hau bat dator Mac Luhanek aspaldian proposaturiko axiomarekin: “*Bitartekoa da mezua*”, hots, informazio-prozesuan bitarteko egiturak subjektu eragilearekiko duen nagusitasuna nabarmena da.

Idea hori berori isladatzen da baita ere kazetariak sailkatzeko orduan. Kazetarien ahalmen pertsonalen murrizketa gero eta zorrotzagoa ikusten dugu bitartekoen baitan egiten den lan-banaketa dela eta. Espezializazio gero eta bortitzago hori informazioaren mundua hainbat eta konplexuagoa dela esanez azaltzen da, baina hori azaleko arrazoia baino ez da gure ustez.

Informazioaren atalak (politika, kirola, ekonomia, gizartea, nazioarteko politika...) alde batera utzirik, kazetariak lantzen duten kazetaritza-generoaren arabera sailkatzeko ohitura dago; behin eta berriz azpimarratzen da kazetariaren nortasunak desagertu³ egin behar duela, errelatoaren objektibotasun handiagoaren mesedetan, edo bigarren mailan geratu behar duela beti ere lantzen duen generoaren garrantziaren eta exigentzien menpe. Horrela bada, hainbat autorek egin dute kazetarien sailkapena. Hemen Mtez. Albertosena aipatuko dugu, baina argitu behar dugu berak eta beste askok, Emil Dovifat⁴ maisu alemaniarrek egindakoa hartzen dutela abiapuntutzat. Gutxi gorabehera honela izango litzateke: Informazioa **idazlari** edo **etxeko-erreportariak** (Iparramerikako autoreek “reportero local” deitzen dutena⁵) lantzen dute; erreportajea edo kronika **kronikariak** edo **erreportari espreski joanak**; eta azkenik, iritzia lantzen duenari, orohar, **editorialgilea** deitzen zaio.

Nolanahi ere, nahiz eta –esan bezala– sailkapen honek ongi erakusten digun zenbaterainokoa den bitartekoaren eta bere lan-banaketa eta barne-antolakuntzaren nagusitasuna kazetariaren autonomia hipotetikoarekiko, ez digu askorik balio kazetariaren lanaren funtza eta portaera desberdinak sakonki karakterizatzeko orduan. Gure aburuz, komunikabideek estatuaren antolaketa-moduarekin eta murgildurik dauden politikaren moduarekiko duten autonomi maila oso erlatiboa da. Ondorioz, komunikabideen –eta horien menpeko kazetarien– jokaeraren eboluzioa,

estatuaren eboluzioak eta aldaketek ezinbestean mugaturik agertzen da.

Gauzak horrela, azken hamar-kadatan izandako eboluzio politikoak hedabideen portaera aztertzeko berebiziko garrantzia du. Klase-kontradikzioa bigarren mailara pasatzen ari den heinean, partiduen karakterizazioa ere aldatzen joan da. Partiduek (eta komunikabideek) klase desberdinen interesen defentsa asumitzen zuteneko estatuarekiko banaketa eta nolabaiteko enfrentamendua abandonatzen joan dira, eta gero eta gehiago joan dira, bai partiduak eta bai mass-media delakoak, erakunde estatal bilakatzen. Estatu-barneko logikan ari dira. Esaten dugun hau egiaztatzeko, beti bezala, krisiak une pribilegiatuak dira, eta Euskal Herria, tokatzen zaigun aldetik, ezin hobea da. Politikaren modu parlamentarioan beraz, partidu politikoak zein hedabideak estatuak bat-eginik agertzen dira, erabat parte⁶.

Bestalde, kazetariak karakterizatzekoan badago, egon, sailkatze hori banaka egiten saiatzen den ikuspuntua: Zeintzuk dira masa-komunikatzaileak? Zein beren jatorri soziala? Zeintzuk beren iritzi politikoak? Non ikasiak dira? Egia esan, galdera horientzako erantzun argirik ez dago, eta dena den ez da hori planteamendu zuzena. Benetan interesatzen zaiguna berriz, beste hau da: zerk eragiten du kazetarien lanaren **ondorioen uniformitatea**? Guretzat erantzuna argi dago, estatuaren efektuaren menpean aurkitzen dira. Ez indibidualki, noski, zeren marxismoaren aurkikuntzarik handienetako

batek ongi azaltzen du estatuak, bere funtsean, ez duela erlaziorik gizabanakoekin baizik eta horiek elkartzen dituzten azpimultzoekin. Beraz, ideia hau ez da berria. Jadanik Aristotelek bere *Politikan* argi utzi zuen estatuaren etorkizun zehatza ez zela bizilagunek okupatzen dituzten leku orekatuekin definitzen, baizik eta masa handien arabera definitzen diren –sarritan estatuaren “parte” diren partiduak–, enpirikoak eta mugikorak aldiberean; haren ustez, aberatsak eta pobreak alegia.

Kazetariak estatuaren efektuaren menpe daudela hain da nabarmena ezen teorilari iparramerikarrak ari diren jadanik kazetariei **funtzionari** deitzen: horrela, John C. Merrill-ek idatzitako liburu batean honako hau esaten da, eta ez du, gure ustez, ezer soberan: “*El comunicador de masas... está institucionalizado, como dicen los sociólogos, es decir, es parte de un sistema organizado de comunicación, un sistema cuyo objetivo es servir al medio en el cual se expresa y a la sociedad. Todo medio de comunicación es una institución social; (...) Los comunicadores (los reporteros y los editores que trabajan para un periódico, por ejemplo) son parte de esta institución. Ellos forman (...) la estructura institucional.*” Eta aurreago, oraindik dudarik balego, autore berberak: “*A los comunicadores de masas con frecuencia se les llama funcionarios: instrumentos a través de los cuales los medios de comunicación logran sus objetivos propios y los objetivos de la sociedad.*”⁷

Zentzu berean, Secanella andreak ere kazetariei buruzko mitoak ongi botatzen ditu lurrera. Izan ere, askok oraindik uste dute kazetaria langile “berezia” dela, “liberal” deitu horietakoa, eta autonomia handia duela bere portaera eta mila joan-etorrietan; *“El aire democrático de las redacciones de los periódicos es sólo una ilusión; la realidad organizativa es mucho más jerárquica de lo que significa el tuteo generalizado o la indumentaria moderna”*.⁸

Aipatu dugun aurkikuntza marxistara itzuliz, ongi barneratu behar dugu estatuak ez duela gizabanakoez ulertzen, baizik eta hauen multzoez -azterketa marxistan, klaseak: *“Estatua, klase meneratzailearen estatua da”*. Baina klaseen lexiko berezia alde batera utzirik ere, guztiz funtsezkoa da estatuak azpimultzo kolektiboekin tratatzen duela ulertzea: partiduak, sindikatuak, ogibideak -funtzionariak bereziki-, komunikabideak... Estatua beraz, egoera sozio-historiko ororen metaegitura beharrezkoa da, oinarritzko batasuna dagoela garantizatzen duen legea, integrazio eta zenbaketarako operatzailea, baina ez gizartean zuzenki, baizik eta, esan bezala, azpimultzoen multzoan. Berak garantizatzen du efektuen uniformitatea, egoeraren koherentzia. Hau da, gure ustez, axioma marxistari gaur egun egin behar zaion irakurketa.

Hau ezarri ondoren, goazen kazetariei maiz planteatzen zaien beste arazo bat ikutzera. Kazetariak, langileak diren aldetik, sindikatuta

egon behar dute? Eta hiritarrak diren aldetik, partidu bateko militante edo afiliatu izan behar dute? Galdera hauen artean betidaniko jarrera biak ditugu: sindikazio edo afiliazioak kazetariaren lan “objektiboari” kalterik baino ez diotela ekarriko defendatzen dutenak, alde batetik; eta kontrakoa mantentzen dutenak, bestetik. Adibidez, Munduko Kazetarien Federazioko idazkari orokorra denak hauxe zioen: *“No es cierto que un periodista pierda su independencia al sindicarse”*... *“Es la primera vez que la CEE reconoce la especificidad del periodista-trabajador de una industria cultural”*⁹.

Guk uste dugu White-ren lehen baieztapena egia dela, baina ez berak dioen zentzuan; kazetariak guztiz galduta du bere “independentzia” komunikabide batean lanean hasten den une beretik, komunikabideak berez estatuaren integraziorako lehen mailako instituzioak direlako, erakunde intraestatalak. Eta ohartzen bagara, inklusio edo barneratzearen errepikapenak, bikoizketak, ez dio estatuari mesederik ekartzen -besterik badirudi ere, integrazio-maila ez da horrela gogortzen, ahultzen baizik-. Estatuarentzat, sistema parlamentarioan bederen, azpimultzoen balizko “autonomia”, banaketa mantentzea, funtsezko printzipioa da. Egunero ikusten dugu sindikatuek behin eta berriro esaten dute ez dutela zerikusirik partiduekin (UGTK PSOErekiko; CCOO, IUrekiko; ELA, PNVrekiko); halaber, sindikazio-mailarik txikiena duten lanbideak funtzionariak eta kazetariak ditugu.

Gaye Tuchmann iparramerikarrak ere komunikabideak gizartearen (estatuaren) funtsezko instituzioak direla diosku: “... *el profesional sirve también a los intereses de la empresa para la que trabaja y reafirma los intereses sociales o políticos en los que se halla inmersa la profesión periodística. No hace falta que el periodista sea un militante de un partido. Quiéralo o no, es siempre un militante de la sociedad*”¹⁰. Bestalde, lanbide konpetitibo eta insolidariorik badago kazetaritza dela oso gauza jakina da. Beraz, oso hedatuta dagoen ustearen kontra guk hauxe mantentzen dugu: partiduak, sindikatuak, ez dira jendearen elkartu beharretik –behetik gora– sortutako erakundeak baizik eta estatuaren egituraketarako funtsezko “parteak” –goitik behera sortuak– eta ondorioz beren oinarritzko batasuna estatuan bilatu behar dugu eta ez beste inon.

Kontua da, hala ere, egoera normalean eta azalezko azterketa eginez, parte horiek autonomiaren, kontraesanen, eta interes desberdinen defentsaren fikzioa mantentzen dutela. Krisi-egoera sakonean soilik agertzen da estatuaren kontsistentzia sakona, baina batasun horren agerpena estatuaren kalterako da; salbuespena¹¹. Hau horrela izanik, esandako guzti hau ulertzeko toki pribilegiatua dugu Euskal Herria; zeren berau baitugu gaur egun munduko kontraesan nagusi berriaren –Nazio-Estatua– agerpenaren toki pribilegiatua.

Azken ikuspuntu honetatik ikusita hemen ditugu Ramón Jaureguik, PSOEko buruzagiak, argitaraturiko

elkarrizketa batean esandakoak¹². Bertan ongi azaltzen du zein betebeharrak ematen dien kazetari eta komunikabideei Euskal Herria eta espainiar Estatuaren arteko gatazkan. Kazetariak galdetzen dio zertara datorren PSOEren aldetik hainbesteko interesa Ajuria-Eneako paktuaren irizpideak komunikabide guztietara hedatzerakoan, eta ondoko hau erantzuten du: “*Eso se está produciendo prácticamente sólo... Nadie está influyendo. Se está generando una cultura colectiva en los medios de comunicación; se han asentado unos valores que facilitan el tratamiento más adecuado de todo lo que se refiere a este tema, aunque quedan algunos fallos semánticos*”.

Albistearen agentetik gertakizunaren kazetarirantz

Arestian aipaturiko kazetarien tipologiara itzuliz, goazen bada Euskal Herritik eta aipatu estatuaren krisi-egoera sakonak ematen dizkigun abantailak profitatuz, kazetarien tipologia berri bat proposatzera. Horretarako, berriz ere, Dovifat-en taxonomiara¹³ itzuli gara horren insufizientzia frogatu nahian, erabiliena eta aipatuena delako. Halaber, lehen aipaturiko Martínez Albertosek¹⁴ Dovifat-en eskemari gehitzen dizkionak ere (izatez kazetaritza anglo-saxoniarraren elementuak gehitzen dizkio) aipatuko ditugu. “*La búsqueda de las noticias está confiada a los ágiles **reporteros**; la organización, valoraciones, forma definitiva de los mensajes y plasmación concreta de la línea*

editorial corresponde a los oscuros redactores; la propuesta de juicios y opiniones mediante editoriales, comentarios y secciones de crítica corresponde al brillante cuerpo de editorialistas". (mundu anglosaxoniarran horrela deitzen dira: **news reporting, news editing** eta **fair comment**).

Argi gera bedi aldez aurretik, klasifikazio orok daraman arbitrariedade-maila. Nolanahi ere, gure tipologia honek autore klasikoek eskaintzen diguten eskema, kazetariak praktikatzen duten generoaren arauera sailkatzen dituena alegia, gaingitu nahi du. Lantzen duten generoaz gain, jarrera subjektibo eta profesional zenbait aztertu nahi dugu, eta gehiago zehaztuz, batez ere Lacanek¹⁵ landutako subjektuaren teoriarin oinarrituta. Hasi aurretik, baita ere, argitu behar dugu proposatzen ditugun hauek ez direla tipo finkoak, kontzeptuak, ezta esperientziak ere; eskaintzen dizkizuegun hauek prozesuentzako izenak baino ez dira.

Edozein subjektuaren eraketan parte hartzen duten kontzeptu oinarrikoak,

Angustia

Kuraia

Superegoa

Justizia

hauek baldin badira, kazetari-mota desberdinak egituraren efektuaren menpe ala diagonal imajinarioetan definitzen dira¹⁶.

Hasteko, **Kazetari eskribaua** dugu (Mtez. Albertosek "oscuro redactor"

edo Warrennek "reportero local" deitzen dituztenak sartuko ditugu hemen). Kazetari hau, egoera, dagoen horretan, erabat ongi dagoelako *sinesmen* osoan dago murgilduta. Estatuaren logikan operatzen du. Berarentzat legea = informazioa = eritzia = Justizia; identifikazio hau modu perfektuan gertatzen delarik, ez da soberakinik gelditzen. Kazetari honek autonomia gutxien duena da. Instituzioetatik datorkion informazioaren menpe dago (agentziak, prentsaurrekoak, iturri ofizialak, zenbait dokumentu...). Objektibotasuna, agentziak eta iturri ofizialak dira bere oinarriko erreferentziak. Ez da sekula ahalegintzen datu ofizialek edota komunikabidearen exigentzien harantzago, sakonago, joaten. Egiarekiko opakua da, nahirik. Ez du ezer arriskatzen. Ez du inoiz momentuko gauzen egoera kuestionatzen, ez eta berriaren bilaketan konprometitzen ere. Bere lanean aurkitzen dituen arazoekiko intsensibilitate izugarria erakusten du, batez ere dagoena kolokan jartzen badute. "Especializazio"rako joera handia du, hots, toki, espazio, genero berean urte luzeetan zehar mantentzeko. Gertakizunarekiko iragazkaitza da eta beraz, albistearekiko oso harkorra. Ez du legea inposaketa gisa sentitzen. Komunikabidearen araua, estatuarena, berezkoa zaio. Superegoan erabat kokaturik dago.

Estatuaren kazetaria (Mtez. Albertosen "editorialista" edo anglosaxoniarraren "fair comment" sartuko lirateke hemen). Hau da gure ustez, eta ez aurrekoa, estatuaren egiazko kazetaria. Honen portaera Superego eta Kuraiaren arteko diagonal imajinarioan kokatuko litzateke. Kazetari-mota

honen distirarik handiena estatuaren kontrako antagonismoa, bere hegonia kolokan jartzen duena borrokatzerakoan agertzen da. Arlo politikoko gidaliburua Konstituzioa du. Hizkuntzaren aldetik, Real Academia. Formaren aldetik, diseinuagatik sarituriko egunkaria. Azken (eta lehen) erreferentzia, estatua. Funtsezko batasuna dutelarik, plural eta ugari gisa tratatzen dute informazioa. Beren luma loratuak albiste hutsak gertakizunak bailiran saltzen erabiltzen dituzte. Egiazko gertakizuna (gauzen egoera kolokan jartzen duena) agertzen denean berriz, balizko pluralismoa desagertu egiten da, iritzi publikoaren kazetari-statusa ematen zizkieten diferentziak aienatu egiten dira. Ikuspuntu desberdinak batean laburtzen dira. Biluzik geratzen da bere azken funtsa, estatuaren aparateroa, funtzionaria, da kazetari hau. Bere sinesgarritasuna honako erretorikan oinarritzen da: *Bai...* (estatuari beti bai) *baina* (ñabardurak, tragoa biguntzeko). Bere etika: “Iritziak ez du inoiz legearen alorra gaintitu behar”. Tipo honetan logika parlamentarioa isladatzen da: bigarren mailako gaitan, oposaketa-jokoa; funtsezkoetan, kotsentsua.

Beste aldetik, **kazetari ausarta** dago (Martínez Albertosen “ágil reportero”, anglosaxoniarren “news reporting”); hemen egongo lirake kronikari bidaiaria eta erreportari espreski joana. Kazetari-mota hau Angustiatik Justiziara doan diagonal imaginarioan mugituko litzateke. Hau da, gure ustez, kazetaritza modernoaren izarra. Kazetari honek ez du justizia (mundua hobetu daitekeelako

printzipioa alegia) inondik ikusten, horregatik angustiatu bizi da, eta funtsean, azken finean, honek ere Superegoa du azken erreferente. Bere etika diskordantziarena da. Egundoko arrakasta du. Eskribauak ez bezala, autonomia handia du, bai pertsonala, bai delegatua. Genero eta gai arruntak ongi lantzeak ez du asetzen kazetari hau. Aintza-egarri handia duela (irakurleen txaloak, bere lankideen enbidia/mirespena eta nagusien onarpena) informazioaren puntu beroak bilatzen ditu, horretarako bere lankide gehienek nahi ez dituzten arriskuak pasatzera ausartzen da. Eskribaua hirugarren pertsonaren atzean izkututzen saiatzen den artean, lehen pertsona (NIa) da kazetari ausarta agertzeko modua. Permittituaren eta debekatuaren arteko muga labainkorrean sarritan ibiltzeagatik, noizbait egia azalez ikutzen du. Nolanahi ere, egia beti kanpotasunean bizitzeak, eta dituen menpekotasun estruktural ugariak beti berreramaten dute buru-belarri murgildurik sartuta zegoen zurrunbilotik patxada informatibora. Sarritan bere kokagune estrukturala gaintitzen duen arren, ez du inoiz hura apurtzen, hura delako, azken finean, bere esistentziaren arrazoia eta bere portaera esplikatzen duena. Leku estrainioetan agertzen bada ere, kazetari ausarta beti egongo da beste guztiek egongo dela espero duten tokian. Kazetari hau da etorkizuneko kazetarien bokazioak pizterakoan sistemaren eredu nagusia. Sakonean, kazetari ausarta eszeptikoa da, horregatik bere goiburua horrela labur daiteke: “Mundu baliogabetu honetan, bizi dezagun informazioa biziki”.

Goazen orain ikustera nola bilakatzen diren aipatu prozesuak estatuarena ez den alorrean. Gure esparruan, ENAMek estatuari planteatzen dion antagonismoaren ondorio, badaude ere, gutxienez, kazetarietzako hiru figura, figura egongaitzak, eta kokapen ezinekoak.

Aparatuaren kazetaria. Aparatua esaten dugunean partidu edo erakunde politikoa esan nahi dugu. Figura honen subjektibitatea oso markatuta dago mugimendu orok (erakunderik iraultzaileenak ere badauka ezinbesteko aspektu hau) duen isuri estrukturalagatik. Aparatuaren kazetaria Erakunde Politiko Zaharrea dago (EPZ), eta erakusten duen kuraia faltsua izanik (imajinarioa) berak oker interpretatzen dituen herri-mugimenduetatik datorkio, –nahiz eta mugimendu sozialekin konfunditzen dituen– eta beti uste du dirigitu egin behar dituela. Dogmatikoa izanik, Superego eta Kuraiaren arteko diagonal imajinarioan mugitzen da.

Kontsignen kazetaria dugu hau. Lan egiten duen komunikabidearekiko desberdina den instantzia batetik datozkio irizpideak. Egiarekiko fideltasunaren aurretik beti jartzen du erakundearekiko fideltasuna, biak gauza bera direla pentsatuz. Bere lan informatiboak sektarismorantz jotzeko sekulako joera dauka: bultzatzen duen informazioa funtsean zerbitzen dituen erakundeetatik datorkio. Erakundeekiko pertsonekin gorespenaren etika erabiltzen du. Estatuaren komunikabideei kritikatzeko dizkien prozedura manipulazailak erabiltzen ditu (zentsura, aparatuarentzat

kaltegarriak diren datuen izkutatzea, disidentziaren desprestigioa, zurrumurruek hedaketa, barne-erantzun posibleen espioia...). Estatuaren kazetariak ez bezala, honek gizartearen problematika sozial eta politikoan murgiltzen dela ematen du, baina funtsean, egiten duena hau da: zerbitzen dituen erakunde partidarioen informazio filtratua transmititu. Erakunde herriaren gainetik dagoela pentsatzen du. Arruntki esaten den bezala “errealitate astabelarritakoekin jaisten da”. Bere jokaeraz galdetzen zaionean beti aipatzen du egitura ikusezin batzuen irizpidea legitimazio gisa. Figura honi kazetari militantea deitu izan zaio, gure ustez, erratuki. Guretzat kazetari militante bakarra egiarena eta kuraiarena da.

Aurrekoaren alor berberean dugu **Kazetari oportunistak**. Bere etika “trepak”rena dugu. Bere meritua une egokian toki egokian egotetik edo egoten saiatzetik datorkio. Besteek kuraiarekin lortutakoa bere bezala pasatzen ahalegintzen da. Berria jaiotzeko puntuan dagoenean, hauek dira detektatzeko trebezia aparta erakusten dutenak, eta horregatik posizio pribilegiatuan kokatzen dira orduan. Hauek ere zuzenean pasatzen dira Angustiatik Justiziara, Superegoaren bitartez, Kuraiatik pasatu gabe; Kuraia zirkuitulaburtu egiten du. Kuraiak borrokatzen denak behar duen Justiziaren antizipazioa, kazetari noiz-nolakoak egituren duen toki pribilegiatuak ematen dion primiziarekin ordezkatu nahi du. Kazetari hau erraz detekta daiteke tronpatzen denean. Superegoak gogor jotzen duenean, lortzen duen

informazioak engainatu egiten du, ez du Justizia berri baten aukera “objektiborik” ikusten. Egoera horietan, angustiak menperatzen du, eta erraz erortzen da fatalismoan, derrotismoan, pesimismoan; horrela, pausu okerrak ematen ditu eta bere burua agerian jartzen du.

Azkenik, **Egiaren kazetaria** dugu. Besteak ez bezala, hau –kazetari independentearen figura enblematikoa– ez da ebidentea, apustuaren emaitza baizik. Subjektuaren eskeman bere Superegoa Erakunde Politiko Berrian kokatzen da, Angustiatik pasatzerakoan Mugimendu Sozialen zalantzatik, Herri Mugimenduen dinamikan bilakatzen du bere Kuraia eta Justizian, Euskal Herria independente eta sozialista baten proiektua du buruan, ez utopikoki baizik pausoz-pauso lortu daitekeen zerbait bezala.

Gertakizunaren kazetaria izanik, herriaren arrazoiei die fideltasuna. Intuizioaren sujeta, alde aurretiko ikusmenaz baliatzen da. Ebidentziak eta datu objektiboez baino sintomez fidatzen da. Koalitatiboa eta egia (berria eta ustekabekoa) ditu irizpide eta ez gauza jakinak (ezagunak, jakingarria, inbentariaturik dagoena; albisteak funtsean). Justiziaren kazetaria izanik, konpromezu militantea du etikatzat; ez da komunikatzailea (ebidentzien igorlea) baizik eta kontzientzi zirikatzailea.

Horregatik, bere informazio-esparrua arlo instituzionaletik at bilakatzen da gehienbat. Kazetari ausarta debekatua mugan ibiltzen bada maiz, baina hutsera (berriaren sorrera posibler) zabaldu gabe, Egiaren kazetaria beti dago ertzean, oin bat errealitatearen egituran eta bestea hutsean; ondorioz askotan egoten da debekatua eta ezinezkoaren arloan. Ez du bere burua profesionaltzat jotzen bere baliabideak ez datozelako fakultatetik, ezta esperientzia profesionaletik ere, baizik eta gizartean dauden kontraesanekiko konpromezu kontsekuentetik. Gizartearen parte hartzailea dugu, bere informazioa azaretik eta apostutik dator. Ausardia kanpotik barrura doan higidura den bitartean, kuraia barnetik sortzen den zerbait da eta bere galdera enblematikoa: “Injustizien aurrean, zer egin?”. Horregatik, bost axola zaizkio komunikabidearen zein jendearen alabantzak. Ez du lanordu finkorik, ez baita langile arrunta baizik eta egiaren arakatzaile porrokatua.

Lan egiterakoan ez da egoten besteen informazioaren zain, ez eta bere partidu politikoaren kontsignak itxaroten ere, ez da edozein saltsatako abentureroa, ez eta pluralismo parlamentarioko kontzientzia telezuzenduen gidaria ere. Bere lan-tresna pribilegiatua inkesta koalitatiboak dira. Funtsean, hau da informazioaren egiazko subjektua.

Bibliografía

- 1.- MARTINEZ ALBERTOS, J.L.: *El lenguaje periodístico*, Paraninfo, Madril, 1989, 207 orr.
- 2.- MARTINEZ ALBERTOS, J.L.: *Curso general de redacción periodística*, Mitre, Bartzelona, 1983, 203 orr.
- 3.- Salbuespen bi -funtsean hedabideen sinesgarritasuna eta efikazia informatiboagatik- desagerpen horretan: espreski joandako kronikari edo erreportari berezia (*enviado especial* delakoa) eta artikulugile-zutabegilea. Oso esanguratsua da Martínez Albertos ikerlariak dioena kazetaritza-*-generoa* den informazioaz aritzerakoan: “*No hay sitio para el yo del periodista*” eta baita ere, “*Es un género escrito por un reportero o reelaborado por un redactor*”. Aurrerago, erreportajeaz ari dela: “... *tampoco es aconsejable que el periodista emita continuamente juicios propios sino que, por el contrario, debe objetivar su pensamiento*”. *Curso de redacción...* op. cit. 280 orr. eta hurrengoak.
- 4.- Gaztelaniazko bertsiorik zaharrena: *Periodismo*, UTEHA, Mexiko, 1963. II ale.
- 5.- WARREN, Carl: *Géneros periodísticos informativos*, Mitre, Bartzelona.
- 6.- Ikus MARTINEZ ALBERTOS, J.L.: *El lenguaje periodístico*, op. cit. 210 orr. eta hurrengoak. Lan honetan, egileak, kazetariaren lana eta parlamentariarena oso modu interesgarrian parekatzen ditu; hona hemen zati esanguratsu bat: “*Los ciudadanos **delegan** su derecho a la libertad de expresión a favor de unos ciudadanos concretos -vamos a llamarlos ya periodistas- para que estos sean los administradores eficaces y honestos de una riqueza social de valor insustituible: la información. Esta delegación es **similar** a la delegación que esos mismos ciudadanos hacen a favor de otros convecinos suyos para que les representen en el Parlamento legislativo y ejerzan el poder ejecutivo en los órganos de Gobierno*”. (negritak gureak dira).
- 7.- MERRILL, Jon C. & LEE, John & JAY FRIEDLANDER, Edward: *Medios de comunicación social. Teoría y práctica en Estados Unidos y en el mundo*. Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madril, 1992.
- 8.- SECANELLA, Petra M.: *Periodismo de investigación*, Tecnos, Madril, 1986, 21 orr.

- 9.- WHITE, Aidan. *ELA-STV. Astekari sindikala-n egindako elkarrizketa*. 1991ko martxoak, 4. 407. zenbakia.
- 10.- ikus SECANELLA, P.M.: op. cit. 20 orr. Baita ere TUCHMANN, Gaye: *La producción de la noticia*, Gustavo Gili, Bartzelona.
- 11.- “*On voit très bien... pourquoi l’Etat est à la fois absolument lié à la présentation historico-sociale, et cependant en est séparé*”. BADIOU, Alain: *L’être et l’événement*, Seuil, Paris, 1988, 123 orr.
- 12.-EGIN, 1991ko martxoaren 18an. 6. orrialdean.
- 13.- op. cit. *Periodismo*, I alea, 21-26 orr.
- 14.- *El lenguaje...* op. cit. 217 orr.
- 15.- LACAN, Jacques: *Écrits eta Séminaires*, Pariseko Seuil argitaletxean.
- 16.-ikus AGIRRE, J. “Del agente de la noticia al perodista del acontecimiento”, in *EGIN*, 1991, urriak, 26. 19 orr.